

KONTROL MOZIOA

65 URTETIK GORAKO PENTSIONISTEK JASOTZEN DITUZTEN LAGUNTZA EKONOMIKOAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2018ko martxoaren 12an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Haien beharrak asetzeko diru-sarrerarik ez duten donostiarrek edo diru-sarrera baxuak dituztenek laguntza ekonomiko jasotzeko eskaera egin dezakete Udaleko oinarrizko zerbitzuetan. Laguntza ekonomiko horien artean, bi mota gestionatzen ditu Donostiako Udalak: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (Eusko Jaurlaritzaren eskumena direnak) eta Lan Partekatuen Plana sustatzeko laguntzak (udal eskumena direnak).

Egun hauetan, egunkari batean argitaratu dira Donostiako Udalak 2017an emandako Gizarte Larrialdietarako Laguntzen inguruko datuak. Datu orokorrak ikusita, 2015etik 2017ra GLLen eskaerek behera egin dute % 6,28. Baina, pertsona pentsionistek egindako eskaerak ikusita, urtetik urtera diru laguntzak behar dituzten pentsionista donostiarrek gero eta gehiago direla ikus dezakegu. Batez ere, 65 urtetik gorako emakumezkoak dira diru laguntza hauek beharrezkoak dituztenak, oinarrizko gastuei aurre egin ahal izateko, eta urtetik urtera haien kopurua gora doa.

Hona hemen azken urteetan ematen ari den egoera:

Urtea	Eskaerak	65 urtetik gorako onuradun emakumezkoak	65 urtetik gorako onuradun gizonezkoak
2013	2.322	525	124
2014	2.613	558	143
2015	2.709	608	151
2016	2.695	662	171
2017	2.539	691	191

Datuetan argi gelditzen da diru laguntzak behar dituzten pentsionisten kopurua gora doala eta onuradunen % 80 emakumezkoak direla.

Pobreziaren feminizazioaren eredu hau Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren kasuan ere errepikatu egiten da. Azken datuek diote DSBEren onuradunen % 25 (15.500 pertsona) pentsionista pobreak direla; hau da, hilero 787 euro baino gutxiagoko pentsioa jasotzen duten pertsonak. Kasu honetan ere emakumezkoen egoera da kezkarriena; izan ere, DSBE jasotzen duten hiru pentsionistetatik bi emakumezkoak dira.

Datu kezkarri hauen aurrean, pentsionista asko ikusi dugu udaletxe aurrean zein kaleetan pentsio duinen aldarrikapena egiten azken asteetan, % 0,25eko igoera-muga ezarri nahi baitu Espainiako Gobernuak, eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatuz.

Martxoko batzordeetan delegatuari honetaz galdetu diogunean adierazi digu Udal Gobernuak lanketa egiten ari dela diru laguntzak behar dituzten pertsonen detekzio lanetan eta haren helburua dela AESak %100ean ordaintzea. Hala ere, ez du zehaztu ekintza zehatzik diru sarrera eskasak dituzten hiriko pentsionisten egoera epe motzean hobetzeko.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari epe motzean komunikazio kanpaina zehatz bat egin dezala, diru-sarrera urriak dituzten pertsona pentsionistek eska ditzaketen diru-laguntzen berri izan dezaten.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko jubilatuen etxeekin eta hirugarren adineko eragile zein elkarrekin saio bat egin dezala, udal gizarte zerbitzuetan eska daitezkeen diru laguntza ekonomikoen berri emateko eta pentsionisten iritzi eta kezkak jasotzeko.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azterketa bat egin dezala hiriko emakume pentsionisten pobrezia-aren inguruko diagnostiko bat edukitzeko.

Donostian, 2018ko martxoaren 16an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia